2023ZAUN0025

# *UDAL GAZTELEKU SAREA KUDEATZEKO KONTRATAZIOA*
# CONTRATACIÓN DE LA GESTIÓN DE LA RED MUNICIPAL DE GAZTELEKUS

**– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –**

| | |
|---|---|
| ***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA** | HEZKUNTZA ETA GAZTERIA / EDUCACIÓN Y JUVENTUD |
| ***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE** | 2023ZAUN0025 |

**KLAUSULAK**

**0. SARRERA**

Gazteriari buruzko udal-politikak politika sektorialen eta trantsizio- eta emantzipazio-politiken ereduari jarraitzen dio, eta, hortaz, bi aldetatik tratatzen ditu haurtzaroa eta nerabezaroa: batetik, berezko balioa eta esanahia duen bizitzako etapa bat diren aldetik, zeinetan pertsona bere bizitzako protagonista den, eta, bestetik, bizitzako etapa horretan pixkanako emantzipazio-prozesu bat gertatzen den aldetik.

Gaztaroak bizitzako etapa luze bat hartzen du barnean, eta beharrezkoa da hura osatzen duen azpietapa bakoitzari bereiz heltzea. Horrenbestez, haurtzaroa, nerabezaroa eta gaztaroa berariaz tratatu behar dira, baita azpietapa horietako bakoitzaren berezko ezaugarriak ere.

**1. JUSTIFIKAZIOA**

Gazteria Departamentuaren egitekoa da haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko politika, jarduera, zerbitzu eta programak diseinatzea, eta egiteko horren esparruan egiten du zerbitzu udal Gazteleku sareak. Berez, Irungo nerabe eta gazteek beren aisialdian gozatzeko, ikasteko, sortzeko eta komunitatean parte hartzeko gune bat dira Gaztelekuak, baita nerabeen kultur adierazpenerako gune bat ere.

Irungo gazteria-politika Gaztematika sarearen barruan dago. Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema da Gaztematika, eta haren egitekoa da Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteei

**CLÁUSULAS**

**0.- INTRODUCCIÓN**

La política municipal de juventud sigue el modelo de políticas sectoriales y modelo de políticas de transición-emancipación, de tal modo que la infancia y adolescencia se conciben en una doble dimensión: por un lado, etapa vital con un valor y significado propio en el que la persona es protagonista de su vida; por otro, etapa vital en la que se produce un proceso de emancipación progresivo.

La juventud abarca una amplia etapa vital y es necesario abordar las distintas subetapas que la conforman de manera diferenciada. Por tanto, la infancia, la adolescencia y la juventud, así como sus rasgos característicos, deben ser tratados de una manera específica.

**1.- JUSTIFICACIÓN**

La labor del Departamento de Juventud consiste en diseñar políticas, actividades, servicios y programas dirigidos a cubrir las necesidades de la infancia, adolescencia y juventud, dentro de la cual se encuadra la red municipal de Gaztelekus. Concebidos como espacios para el disfrute, el aprendizaje, la creación, la expresión cultural y la participación comunitaria dirigido al ocio y tiempo libre de los/as adolescentes de Irun.

La política local de Juventud se enmarca dentro de la red Gaztematika (Sistema de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa). La labor de dicho sistema consiste en facilitar recursos que permitan a niños/as, adolescentes y jóvenes de Gipuzkoa

baliabideak ematea, aipatutako bi aldeetatik, hazi egin daitezen eta beren haurtzaroaz, nerabezaroaz eta gaztaroaz goza dezaten.

Zerbitzuek hurbiltasun fisikoan, giza hurbiltasunean, denborazko jarraitutasunean eta proiektu erakargarrien eskaintzan oinarritu behar dute, horrela erantzungo baitzaio behar bezala haur, nerabe eta gazteen garapenari.

Balio, printzipio eta irizpide hauek dira sistemaren konfigurazioari zentzua ematen diotenak eta hura bideratzen dutenak:

- Haur eta gazteen sustapenerako politikaren sektorialtasun, espezifikotasun, zeharkakotasun eta integraltasuna.
- Berdintasuna, ekitatea, kultur aniztasuna eta euskararen sustapena.
- Erantzukizun publikoa eta gizartearen parte-hartzea.
- Koordinazioa eta sareko lana.
- Proaktibitatea, hurbiltasuna, jarraitutasuna eta prebentzioa.
- Jakintzan oinarritutako kalitateko esku-hartzea.

Haur, nerabe eta gazteen beharren detekzio jarraituan oinarrituz, Gazteria Zerbitzuak zenbait esparrutan esku hartzen du:

- Informazioa
- Orientabidea
- Laguntza
- Aisialdiko heziketa
- Adierazteko eta parte hartzeko bideak
- Sortzeko eta ekoizteko laguntza

crecer y disfrutar de su infancia, adolescencia y juventud en la doble dimensión antes mencionada.

Los servicios deben basarse en la proximidad física, cercanía humana, continuidad temporal y oferta de proyectos atractivos, con el fin de responder satisfactoriamente al desarrollo de la infancia, adolescencia y juventud.

Los valores, principios y criterios que dan sentido y orientación a la configuración del sistema son los siguientes :

- Carácter sectorial y específico y carácter transversal e integral de la política de promoción infantil y juvenil.
- Igualdad, equidad, diversidad cultural y promoción del euskera.
- Responsabilidad pública y participación social.
- Coordinación y trabajo en red.
- Proactividad, proximidad, continuidad y prevención.
- Intervención de calidad y basada en el conocimiento.

Partiendo de la detección continua de las necesidades de niños/as, adolescentes y jóvenes, los servicios de Juventud llevan a cabo su labor en distintas áreas o tipos de intervención:

- Información
- Orientación
- Acompañamiento
- Ocio educativo
- Canales para la expresión y participación
- Apoyo a la creación y producción

## 2. XEDEA

Kontratuaren xedea udal Gazteleku sarea eta jarduera-programa kudeatzea da.

Kontratuaren esleipendunak zerbitzuak kudeatu eta antolatu beharko ditu, haietaz arduratu, eta haiek eman, baldintzen plegu honek xedatzen dituen baldintza teknikoen pean, genero ikuspegia kontuan izanik.

## 3. ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

### 3.1. Deskripzioa

## 2.- OBJETO

El objeto del contrato es la gestión de la red municipal de Gaztelekus y su programa de actividades.

La ejecución del contrato consistirá en la gestión, atención, organización y funcionamiento del servicio, con arreglo a las condiciones técnicas establecidas en el presente Pliego de Condiciones, y con perspectiva de género.

## 3.- DEFINICIÓN DEL SERVICIO

### 3.1. Descripción

Nerabe eta gazteei arreta emateko eta haien inguruko gizarte- eta hezkuntza-gaiak sustatzeko erreferentziazko zerbitzu publikoak dira Gaztelekuak.

Los Gaztelekus constituyen el servicio público de atención y promoción socioeducativa referente para los/las adolescentes y jóvenes.

Metodologiaren ikuspegitik, taldean eta banan-banan esku hartzeko proiektuetan oinarrituz lan egiten du zerbitzuak. Proiektuak programatzeko, funtsezkoa da erabiltzaileak inplika daitezen. Arretaren borondatezkotasunean eta hezitzaile eta nerabeen arteko harremanean oinarritzen baita esku-hartzea.

Desde el punto de vista metodológico el servicio trabaja sobre la base de proyectos de intervención colectiva e individual, en cuya programación resulta clave la implicación de las personas usuarias. La intervención se basa en la atención voluntaria y tiene como punto de partida la relación entre educador/a y adolescente.

Lan-esparru nagusiak aisialdi aktiboa, laguntza eta adierazteko eta parte hartzeko bideak dira.

Las principales áreas de acción son el ocio activo, el acompañamiento y los canales para la expresión y participación.

Udal Gazteleku sarea Artiako Gaztelekuak (Elizatxo hiribidea, 18 ) eta Martindozeneako Gaztelekuak (Julio Caro Baroja plaza, 3) osatzen dute.

La red municipal de Gaztelekus está compuesta por el Gazteleku de Artia (Plaza Julio Caro Baroja, 3) y por el Gazteleku Martindozenea (Avenida Elizatxo, 18).

### 3.2. Hartzaileak

### 3.2. Personas destinatarias

12 urtetik 17ra bitarteko gazteentzat dira Gaztelekuak.

Los Gaztelekus están dirigidos a jóvenes de 12 a 17 años.

Erabiltzaileen adin-tartea hain luzea izanik, egoki irizten bazaio, eskaintza eta programa berezituak planteatu ahalko dira, Udalarekin hitzartuta.

Dada la amplitud de dicha franja de edad, se podrán plantear, previo acuerdo con el Ayuntamiento las ofertas y programas diferenciados que se estimen oportunos.

Martindozeneako Gaztelekuan esleipendunak 15 urtetik 18ra bitarteko gazteentzat bideratutako programa berezi bat gauzatuko du

En el caso del Gazteleku de Martindozenea la empresa adjudicataria realizará un programa específico dirigido a jóvenes de entre 15 y 18 años.

Bestalde, badira zerbitzuen zeharkako hartzaileak: nerabeen heziketan erantzukizuna duten helduak (gurasoak, dinamizatzaileak, irakasleak…).

Por otro lado, se consideran destinarios/as indirectos/as a las personas adultas que comparten responsabilidades en la educación de los/las adolescentes (padres-madres, dinamizadores/as, docentes…).

### 3.3. Helburuak

### 3.3. Objetivos

**Helburu orokorrak:**

**Objetivos generales:**

- Gaztelekuak gazteentzako erreferentziazko baliabide gisa sustatzea.
- Gazteen artean gorabidean dauden jarduerak egiteko aukera ematea, aisialdia aktiboki emateko gune bat eskainita, gazteek beren ekimenak gauzatu ahal izan ditzaten eta zerbitzuak berak diseinatzen duen programazioan parte har dezaten.
- Hezteko asmoa duen gune bat eskaintzea gazteei, dibertitu egin daitezen eta aisialdiaz

- Impulsar los Gaztelekus como recursos referente para la población joven.
- Posibilitar el desarrollo de actividades emergentes entre la juventud, facilitando su acceso a un espacio de ocio activo, en el que puedan desarrollar sus propias iniciativas, así como participar en la programación que se diseñe desde el propio servicio.
- Ofrecer un espacio con intencionalidad educativa para la diversión y disfrute de un

aktiboki eta sormenez goza dezaten.

- Gazteak bizitzarako jarrera eta abileziez jabetzea eta horrelakoak garatzea.
- Harremanak sortzea.
- Gizarteratzeko balio duten harremanak garatzea.

Gaztelekuetatik honako **helburu espezifiko** hauek betetzearren estrategiak diseinatu eta landuko dira:

- Gazteek aisialdiaz ikasiz, aktiboki, parte hartuz, sormenez eta modu osasungarrian goza dezaten bermatzea.
- Hezteko asmoa duen gune ludiko bat sustatzea, bakearen kulturan, gizalegean, giza eskubideetan eta aniztasunean oinarritutakoa
- Aisialdiaz gozatzeko askotariko moduak eskaintzea, gogo-pizgarriak eta sormenezkoak
- Nerabeen eta zerbitzuko profesionalen artean eragin-harremanak sortzea.
- Gazteei autonomiaz jabetzen laguntzea, pixkana-pixkana ardura garatzeko aukera emanda.
- Gazteek gatazkak konpontzeko gaitasunak gara ditzaten bultzatzea.
- Gazteei helduaroan sartzen laguntzea, bizitzarako gaitasunez jabetzen eta horrelakoak garatzen lagunduta.
- Adin bereko pertsonen artean harreman egonkor, atsegin-emaile eta erreferentziazkoak sortzea.
- Taldeko bizitza eta taldeen arteko harremanak sustatzea.
- Gazteek aniztasuna ezagut eta onar dezaten bultzatzea.
- Neska-mutilen arteko aukera-berdintasuna eta egoera okerragoan dauden taldeen aukera-berdintasuna bermatzea.
- Gazteek inguruko errealitatea ezagutu dezaten bultzatzea.
- Parte hartzeko, aktibo izateko eta arduratsua izateko kultura sortzea eta hedatzea, non gazteak subjektu aktiboak eta komunitateko partaideak diren.
- Gazteek konpromiso sozial eta komunitarioa ikas eta sendotu dezaten bultzatzea.
- Gazteen proposamenak bideratzea, jarduerak antolatzeko eta gazteek beren jarduerak antolatzeko.
- Gazteek kultur ohiturak har ditzaten bultzatzea.
- Gazteek hainbat esparruri aplikatutako sormena gara dezaten bultzatzea.

tiempo libre activo y creativo.

- Adquirir y desarrollar actitudes y habilidades para la vida.
- Establecer vínculos relacionales.
- Desarrollar una relación para la integración en el entorno social.

Desde los Gaztelekus se diseñarán y desarrollarán estrategias de cara al cumplimiento de lo siguientes **objetivos específicos:**

- Garantizar el disfrute del tiempo libre de manera educativa, activa, participativa, creativa y saludable.
- Impulsar un espacio lúdico con intencionalidad educativa, basado en la cultura de la paz, el civismo, los derechos humanos y la diversidad.
- Ofrecer formas diversas, estimuladoras y creativas de disfrutar del tiempo libre.
- Construir relaciones de influencia entre adolescentes y profesionales del servicio.
- Favorecer la adquisición de autonomía, posibilitando la construcción progresiva de la responsabilidad.
- Potenciar el desarrollo de competencias para la resolución de conflictos.
- Fomentar el tránsito a la vida adulta, adquiriendo y desarrollando competencias para la vida.
- Generar relaciones estables, gratificantes y referencias con personas de la misma edad.
- Fomentar y estimular la vida de grupo y las relaciones entre grupos.
- Fomentar el conocimiento y aceptación de la diversidad.
- Garantizar la igualdad de oportunidades entre chicas y chicos y entre sectores desfavorecidos.
- Estimular el descubrimiento de la realidad próxima.
- Crear y difundir una cultura participativa activa y responsable en la que las personas jóvenes sean sujetos activos que forman parte de la comunidad.
- Fomentar el aprendizaje y fortalecimiento de un compromiso social y comunitario.

- Canalizar las propuestas de las personas jóvenes para posibilitar la organización y auto organización de actividades.
- Fomentar la adquisición de hábitos culturales.
- Potenciar el desarrollo de la creatividad aplicada a diferentes ámbitos.

- Gazteek abilezia sozial, kultural eta artistikoak gara ditzaten bultzatzea.
- Gazteentzat interesgarriak diren udal-proiektuak sustatzea.
- Euskara sustatzea.
- Erreferentziazko helduei nerabe eta gazteen errealitatea ezagutzen eta ahal den neurrian elkarrekin komunikatzeko bideak sortzen laguntzea.
- Babesgabetasun-kasuak detektatzea.
- Gaztelekuak auzoetara eta hirira hurbiltzea eta beste eragile eta entitate batzuekin harremanetan jartzea, elkarlanean aritzeko guneak sortuta.
- Belaunaldi arteko harremanetarako guneak sustatzea.

- Potenciar el desarrollo de habilidades sociales, culturales y artísticas.
- Impulsar proyectos municipales de interés para la población joven.
- Impulso y fomento del euskera.
- Ayudar a los adultos/as de referencia a conocer la realidad de las y los adolescentes y jóvenes y establecer vías de comunicación en la medida de lo posible.
- Detectar posibles casos de desprotección
- Acercar los Gaztelekus a los barrios y a la ciudad y establecer relaciones con otros agentes y entidades, construyendo espacios de colaboración.
- Potenciar espacios para las relaciones intergeneracionales.

**3.4. <u>Zerbitzuaren ematea</u>**

Aurreikuspenen arabera, esleipenduna 2023ko irailaren 1ean hasiko da kontratua gauzatzen, bi urterako, bi urte luzatzeko aukerarekin.

Oro har, Gaztelekua irailaren 15etik uztailaren 31ra bitartean egongo da zabalik, eta abuztuan eta iraileko lehenengo hamabostaldian itxita egongo da; iraileko lehenengo hamabostaldian, barne lana egiteko. Irailetik ekainera bitartean, astean hamazazpi (17) ordu egongo da irekita, eta uztailean, astean hogei (20) ordu. Zehazki, honela antolatuko da ordutegia:

1.- Iraileko bigarren hamabostalditik ekainaren 30era
Asteartetik ostegunera, 17:00etatik 20:00etara
Ostiraletan, 17:00etatik 21:00etara bitartean
Larunbatetan, 17:00etatik 21:00etara bitartean

2.- Uztailaren 1etik 31era
Asteartetik larunbatera 17:00etatik 21:00etara

Oporraldietan (Pazko-astean, udan, Eguberrietan), aldatu egin ahalko dira ordutegiak.

Gaztelekua irekita dagoen egunetan, <u>I. eranskinak</u> zehazten ditu egunak, horiexek izango dira ordutegiak, eta dagokion urtera egokituko dira. Gaztelekua zabaltzeko egunak eta ordutegiak aldatu egin ahalko dira eskaera berrien, gazteek programari egiten dioten harreraren, eskaintzen diren zerbitzuen egokitasunaren eta aipatutako helburuen lorpen-mailaren arabera, baina horrek ezingo du ekarri kontratuaren gauzatzearen kalitatea inola aldatzea. Gainera, aipatutako aldaketak egiteko, kontraturaren arduradunaren

**3.4. <u>Prestación del servicio</u>**

La ejecución del contrato se prevé que comience el 1 de septiembre de 2023 y tenga una duración de 2 años, prorrogable 2 años más.

Como norma general, el Gazteleku permanecerá abierto desde el 15 de septiembre hasta el 31 de julio y cerrará sus puertas en agosto y la primera quincena de septiembre, dedicando esta quincena a trabajo interno. El horario de apertura al público del Gazteleku será de 17 horas semanales de septiembre a junio y de 20 horas en julio, con la siguiente distribución:

1.- De la segunda quincena de septiembre al 30 de junio
17:00- 20:00 de martes a jueves
17:00- 21:00 viernes
17:00- 21:00 sábados

2.- Del 1 al 31 de julio
De martes a sábado de 17:00 a 21:00

Estos horarios podrán ser modificados en periodos vacacionales (Semana de Pascua, verano, navidad).

Estos horarios se mantendrán durante los días de apertura del Gazteleku detallados en el <u>Anexo I,</u> adecuándose a la anualidad de que se trate, pudiendo ser modificados, días y horarios, en función de nuevas demandas, aceptación del programa por parte de los jóvenes, idoneidad de los servicios ofrecidos y grado de cumplimiento de los objetivos anteriormente citados, sin que ello suponga modificación alguna en la calidad de la ejecución del contrato. Dichas modificaciones deberán contar con el visto bueno expreso de la

oniritzia beharko du aurretik.

Irekiera ordutegi horretaz gain, barruko lan egiteko ordutegi bat bete beharko da, irekiera ordutegiaz bestelakoa ezinbestean, nahitaezkoak diren dedikazio orduak osatzeko. Alde horretatik, bi koordinatzaile-dinamizatzaileek 1592 ordu egin beharko dituzte nahitaez urtean, eta lau dinamizatzaileek, 1056 ordu urtean bakoitzak.
Bosgarren hezitzaileak 555 ordu egin beharko ditu urtean.

Koordinatzaile-dinamizatzaileek eguneko bi ordu gutxienez goizez egingo dituzte, astelehenetik ostiralera bitartean

persona responsable del contrato.

Además de dicho horario de apertura, se establece un horario de trabajo interno necesariamente distinto del de apertura que complete las horas de dedicación exigidas que en el caso de las 2 personas coordinadoras-dinamizadoras son 1592 horas anuales cada una. En el caso de las cuatro personas dinamizadoras completarán 1056 horas anuales cada una.
La horas anuales de la quinta persona dinamizadora son 555 horas anuales.

En el caso de las horas de las personas coordinadoras-dinamizadoras 2 horas al día como mínimo serán por la mañana de lunes a viernes.

### 3.5. Jarduera esparruak

Irungo Udaleko Gazteria Zerbitzuak finkatzen dituen helburuak lortzea izango da zerbitzua kudeatzeko xedea.

Oro har, kontratuaren arduradunak ezartzen dituen arau eta irizpideak beteko ditu esleipendunak, lan-esparru hauetan:

**A) Zuzeneko arreta**

Gaztelekua izango da nerabeei zuzeneko arreta emateko gune nagusia, baina bestelako lekuetan ere egingo dira horretarako dinamikak: kalean, auzoetan, kirol-eremuetan, berdeguneetan…

Nerabe eta gazteak heztea izango da ekimen eta jardueren asmoa, eta jarduera-arlo batek baino gehiagok egingo dituzte jarduerak; alde horretatik, aurrez zehaztuko da zer arlok egingo dituzten jarduerak.
Eskariaren eta beharren etengabeko azterketa izango da programazioaren oinarria, eta heziketa-harremana funtsezkoa izango da.

Nerabe zerbitzua antolatzeko fase guztietan parte hartzea bultzatuko da: plangintzan, zerbitzu-ematean eta ebaluazioan.

Funtsean, taldean esku hartuko da, eta, horrela, parekoen arteko harremanak sustatuko dira, baita zailtasunak dituzten pertsonek parekoen taldeetan eta, oro har, zerbitzuetan parte hartzea.

Zerbitzua definitzerakoan aipatutako helburuak

### 3.5. Áreas de actuación

La gestión del servicio estará orientada a la consecución de los objetivos establecidos por el Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Irun.

Como regla general, la entidad adjudicataria cumplirá las normas y orientaciones establecidas por la persona responsable del contrato en los siguientes ámbitos de trabajo:

**A ) Atención directa**

El equipamiento será el principal espacio para la atención directa de los/as, aunque también se llevarán a cabo dinámicas en otro tipo de espacios como la calle, barrios, zonas deportivas, verdes etc.

Las iniciativas y actuaciones tendrán una orientación educativa intencional en clave adolescente y joven y se llevarán a cabo acciones y actividades integradas por distintas áreas de actuación definidas previamente. El análisis continuo de la demanda y necesidades constituirá la base de la programación, y la relación educativa será fundamental.

Se fomentará la participación de adolescentes en todas las fases de organización del servicio: planificación, ejecución y evaluación.

El marco de intervención, fundamentalmente grupal, facilitará las relaciones entre iguales y la participación de personas con dificultades en grupos de iguales y servicios en general.

Con el fin de cumplir los objetivos señalados en la

lortzen laguntzeko, esleipendunak hainbat programa eta baliabide baliatu beharko ditu zuzeneko arretaren esparruan.

Programak:

Jolas librean aritzeko eta elkartzeko denbora uzteaz gain, programa eta baliabide hauek baliatu beharko dira:

- **Sorkuntza eta adierazpen artistikoa:** Eduki artistikoa duten tailer, jarduera, erakusketa eta ekitaldiak eta Gazteria Zerbitzuak proposatzen dituen jarduerak erabiliko dira, adierazmena, sormena eta harremanak garatzeko eta garapen pertsonala sustatzeko.

- **Parte-hartzearen sustapena:** Parte hartzeko prozesuen diseinua eta Gazteria Zerbitzuak proposatzen dituen ekimenak sustatuko dira.

- **Osasuna:** Arriskuei aurrea hartzeko eta ohitura osasungarriak sustatzeko proposamenak gauzatuko dira.

- **Giza balioak:** Tailerren, jarduera gidatuen, elkarteekiko harremanaren… bidez, bakea, giza eskubideak, kultur aniztasuna, bizikidetza, gizarteratzea eta kideko balioak sustatzeko jarduerak egingo dira.

- **Informazio-zerbitzua:** Erreferentziazko gunea izango da Gaztelekua, eta gazteentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa emango du. Ildo horretatik, dinamizatzaileek aktiboki lan egingo dute informazioa ezagutarazten.

- **Informazio- eta komunikazio-teknologiak eta sare sozialak:** Gaztelekuak aktiboki parte hartuko du sare sozialetan, bere zerbitzuak ezagutarazteko, eta, etengabe, nerabeek erabiltzen dituzten baliabideetara egokituko da. Gainera, sare sozialak oker erabiltzearen arriskuak landuko ditu.

- **Familiekiko harremana:** Askotariko ekimenen bitartez sustatuko da.

- **Harreman komunitarioa:** Auzoko

definición del servicio, deberá tener en cuenta el desarrollo de los siguientes programas y recursos en el ámbito de la atención directa:

Programas:

Además de los momentos para el juego libre y el encuentro deberá tenerse en cuenta el desarrollo de los siguientes programas y recursos:

- **Creación y expresión artística**: Talleres, actividades, exposiciones y eventos con contenidos artísticos, junto a la acogida de las iniciativas propuestas por el Servicio de Juventud utilizados como herramientas para desarrollar la expresión, creatividad, la relaciones y el desarrollo personal.

- **Fomento de la participación**: Se potenciará el diseño de procesos participativos y la acogida de iniciativas propuestas por el Servicio de Juventud.

- **Salud**: Propuestas para la prevención de riesgos y el fomento de hábitos saludables.

- **Valores humanos:** mediante talleres**,** actividades guiadas, contactos con asociaciones… se desarrollarán actividades basadas en el fomento de valores como la paz, los derechos humanos, la diversidad cultural, convivencia e integración.

- **Servicio de información:** El Gazteleku será espacio de referencia con información sobre temas de interés para la juventud, por lo que los dinamizadores/as trabajarán activamente en la difusión de dicha información.

- **TIC y redes sociales:** El Gazteleku participará activamente en las redes sociales, como herramienta de comunicación y difusión de sus servicios, adaptándose permanentemente a los recursos utilizados por los/as adolescentes. Además, se trabajará en los riesgos del mal uso de las redes sociales.

- **Comunicación con familia:** Se fomentará mediante distintas iniciativas.

- **Relación comunitaria:** Integración del

bizitzan integratuko da zerbitzua, komunitatean antolatzen diren jardueretan aktiboki parte hartuta.

- **Irteerak:** Irteerak antolatuko dira, proiektu jakinetan eta jarduera berezietan parte hartzeko.

- **Oporretako programa bereziak:** Pazko-astean, udan eta Eguberrietan, jarduera bereziak antolatuko dira.

- **Beste udal-programa batzuk:** Gaztelekuek koordinatzaile eta laguntzaile-lanak egingo dituzte beste udal-programa batzuen esparruan eta Udalak (funtsean, Gazteria Zerbitzuak) eta kontratistak hitzartzen dituzten intereseko programen esparruan.

servicio en la vida del barrio, participando activamente en las actividades que se llevan a cabo en la comunidad.

- **Salidas:** Se organizarán salidas para participar en proyectos concretos o actividades especiales.

- **Programas especiales de vacaciones:** Se organizarán actividades especiales en los periodos de Semana de Pascua, verano y Navidad.

- **Otros programas municipales:** Los Gaztelekus llevarán a cabo labores de coordinación y colaboración en programas municipales y de interés concertados entre el Ayuntamiento (principalmente el Servicio de Juventud) y el adjudicatario.

**B) Zeharkako arreta**

Barne-egiteko hauek beteko ditu esleipendunak:

**a) <u>Errealitatearen azterketa</u>**

Behar bezala erantzungo bazaie, nerabeen beharrak identifikatu beharko dira. Ildo horretatik, etengabeko ebaluazioa eta errealitatearen azterketa baliatuko dira, besteak beste, esku-hartzearen norabidea eta ezaugarriak zehazteko. Era berean, informazioaren eguneratzea eta etengabeko prestakuntza izango dira lan-esparru honetako oinarrietako bi.

**b) <u>Zerbitzuaren planifikazio eta ebaluazioa</u>**

Arreta berezia jarriko da jarduerak programatzeko, plangintza eta erabakitze-prozesua parte hartzeko modukoak izan daitezen.

Gutxienez, <u>fase</u> hauek osatuko dute **plangintza**:

Ikasturtearen plangintza (irailetik uztaila bitartekoa)
Hilabete bakoitzaren plangintza
Berariazko proiektuen prestakuntza
Zeharkako arretaren esparruko programak

**Ebaluazioa** jarraitua izango da, kuantitatiboa zein kualitatiboa, eta erabiltzaileen iritzia neurtzeko balioko du, baita hura hobetzeko

**B) Atención indirecta**

Se llevarán a cabo las siguientes tareas internas:

**a) <u>Análisis de la realidad</u>**

Será necesario identificar y conocer las necesidades de las personas adolescentes para poder responder adecuadamente a ellas. La evaluación continua y el análisis de la realidad serán dos de los recursos utilizados para definir la orientación y características de la intervención. Así mismo, la actualización de la información y la formación continua serán dos de los pilares de este ámbito de trabajo.

**b) <u>Planificación y evaluación del servicio</u>**

Se prestará especial atención a la programación de las actividades y carácter participativo de la planificación y toma de decisiones.

La **planificación** contemplará al menos las siguientes <u>fases:</u>

Planificación del curso (septiembre-julio)
Planificación mensual
Elaboración de proyectos específicos
Programas especificados en el apartado de atención indirecta

Respecto a la **evaluación** está será continua, cuantitativa y cualitativa. Medirá el nivel de satisfacción y propondrá métodos y

metodo eta prozedurak proposatzeko.

Ebaluazioa hileko txostenen bidez jasoko da, egindako lanari eta antzemandako beharrei buruzko informazioa emateko eta hobekuntza proposamenak egiteko, eta proiektu osoaren oroitidazkia egitea.

Abenduan aurkeztuko da azken oroitidazkia, eta eduki hauek jorratuko ditu gutxienez: zerbitzuaren bilakaera, funtzionamendua, datu estatistikoak, ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak.

procedimientos para mejorarla.

La evaluación se reflejará a través de la elaboración de informes mensuales con información relativa a las acciones desarrolladas, necesidades detectadas y propuestas de mejora, así como una memoria de la ejecución del proyecto.

La memoria final se presentará en el mes de diciembre. Y contendrá como mínimo los siguientes aspectos: desarrollo del servicio, funcionamiento, datos estadísticos, evaluación y propuestas de mejora.

**c) <u>Zeharkako ildoen planifikazio eta garapena</u>**

Arreta berezia jarri beharko da zeharkako ildo hauen garapenean:

- **Genero-berdintasuna**

  Kontuan hartuko dira genero-berdintasuna eta emakume eta gizonen arteko parekotasuna, baita indarrean dagoen Irungo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planaren ondorio eta irizpideak eta Berdintasun Zerbitzuak proposatzen dituen gainerako neurriak.

  Ildo horretatik, arreta berezia jarri beharko da emakume eta gizonen parte-hartzea parekoa izan dadin.

  Dokumentuek, publizitateak, irudiek eta kontratuaren ondorioz sortzen den gainerako materialak hizkuntza ez-sexista erabili beharko dute. Ahal dela, ez da erabiliko emakumeen diskriminazioa areagotzen duen irudirik, eta berdintasuna, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta kideko balioak sustatuko dira. Era berean, kontratuaren ondorioz sortzen diren txostenek, idazkiek, estadistikek… eta biltzen diren datuek kontuan izango dute generoaren araberako ikuspegia.

- **Euskara**

  Euskara nerabeen artean erabil dadila bultzatuko da eta horretarako bideak jarriko dira. Bereziki hartuko dira kontuan

**c) <u>Planificación y desarrollo de las líneas transversales</u>**

Se deberá prestar especial atención al desarrollo de las siguientes líneas transversales:

- **Igualdad de género**

  Se tendrá en cuenta la igualdad de género y la paridad de mujeres y hombres, así como las conclusiones y criterios establecidos en el vigente Plan de Igualdad municipal y resto de medidas propuestas por el Servicio de Igualdad.

  Deberá prestarse especial atención a la paridad en la participación de mujeres y hombres.

  Deberá utilizarse un lenguaje no sexista en la documentación, publicidad, imágenes y demás material resultante del contrato. Se evitará el uso de imágenes que redunden en la discriminación de la mujer y se potenciarán valores como la igualdad, la diversidad y la corresponsabilidad. Así mismo, se tendrá en cuenta la visión de género en los informes, escritos, recopilación de datos, estadísticas… que resulten de la ejecución del contrato.

- **Euskera**

  Deberá potenciarse el uso del euskera entre las personas adolescentes y se establecerán vías para ello, teniendo especialmente en

Euskararen erabilera udalean eta Irungo udalerrian normalizatzeko arauak jasotzen dituen Udal Ordenantzan ezarritako ildo nagusiak.

Zerbitzua ematerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzea bermatuko da, eta euskararen erabilerak lehentasuna izango du. Ildo horretatik, ele bitan idatziko dira kontratua gauzatu bitartean sortzen diren materialak, dokumentuak, aurkezpenak.

- **Inklusioa**

Nerabeen parte-hartzea bermatzerakoan, kontuan izan beharko da haien aniztasuna, eta arreta berezia jarri beharko da behar bereziak dituzten pertsonengan.

**d) <u>Koordinazioa</u>**

Koordinazioa funtsezkoa da haur eta nerabeen sustapenerako zerbitzuetan, eta beharrezkoa da alor honetan lan egiten duten arlo eta eragileekin elkarlanean aritzea, gazteen behar eta interesak askotarikoak eta ugariak baitira.

Honela zehaztuko da koordinazioa:

- **Barne-koordinazioa**
  Zuzeneko arreta ematen duen lantaldeari dagokiona da: zerbitzuaren planifikazioa eta kudeaketa.

- **Gazteria Zerbitzuarekiko koordinazioa**
  Gaztelekuetako zerbitzuak antolatzeari eta planifikatzeari, haren jarraipena egiteari, gorabeherak aztertzearidagokiona da.
  Zerbitzuko koordinatzaile-dinamizatzaileek zuzeneko komunikazioa ahalbidetzeko telefono mugikorra izango dute.

  Ildo horretatik, GazteARTEAn (Udal Gazteria zerbitzua) Mahaian parte hartuko du esleipendunak.

  Era berean koordinazioa gauzatuko da ,

cuenta las directrices establecidas en la Ordenanza Municipal sobre normas para la normalización del uso del Euskera en el ayuntamiento y municipio de Irun.

Se garantizará el uso de ambas lenguas oficiales en la prestación del servicio, dando prioridad al uso del euskera. Así mismo, los materiales, documentos, presentaciones… elaboradas durante la ejecución del contrato deberán redactarse tanto en euskera como en castellano.

- **Inclusión**

Deberá garantizarse la participación de las personas adolescentes teniendo en cuenta su diversidad, prestándose especial atención a aquellas personas con necesidades especiales.

**d) <u>Coordinación</u>**

La coordinación es una labor fundamental en los servicios de promoción de la infancia y adolescencia y es necesario trabajar conjuntamente con las diferentes áreas y agentes implicados en esta cuestión, dado que las necesidades e intereses de la población joven son múltiples y variados.

La coordinación se concretará de la siguiente manera:

- **Coordinación interna:**
  Equipo de trabajo de atención directa: planificación y gestión del servicio.

- **Coordinación con el Servicio de Juventud:**
  Organización, planificación y seguimiento del servicio de los Gaztelekus, análisis de incidencias, etc. con la persona responsable del contrato.
  Las personas coordinadoras-dinamizadoras dispondrán de un teléfono móvil que facilite la comunicación directa.

  De la misma forma, la empresa adjudicataria participará en la Mesa GazteARTEan (Servicio de Juventud municipal).

  Coordinación con otros servicios y

Gazteriako beste zerbitzu eta programa batzuekin: Igazte, AsexoraT, Haur eta nerabeen parte-harze sistemarekin, Haurtxokoekin eta batez ere GazteARTEan KONEKTA bitartekaritza zerbitzuarekin.

programas del servicio de Juventud: Igazte, AsexoraT, Sistema de participación infantil y adolescente, Haurtxokos y especialmente con el Servicio de Mediación GazteARTEan KONEKTA.

- **Beste zerbitzu eta entitate batzuekiko koordinazioa**

- **Coordinación con otros servicios y entidades**

Gizarte-zerbitzuekin, udal-departamentuekin eta haur, nerabe eta gazteen sustapenean heziketaren, artearen, kulturaren, kirolaren… aldetik lan egiten duten entitateekin koordinatu beharko du Gaztelekuak.

Coordinación con servicios sociales, departamentos municipales, entidades que trabajen en la promoción de infancia, adolescencia y juventud en las diferentes vertientes: educativas, artísticas, culturales, deportivas etc.

Gaztematika barruko hezitzaileen foroetan parte hartuko du gaztelekuak.

Participación en los foros de educadores de Gaztematika.

- **Beste eragile batzuekiko koordinazioa**

Lurraldeko baliabide eta elkarteekin koordinatuko da Gaztelekua, jarduerak koordinatzeko eta/edo elkarrekiko jarduerak antolatzeko.

- **Coordinación con otros agentes**

Con recursos y asociaciones del territorio para la coordinación de actividades y /o actuaciones conjuntas.

e) Informazioaren kanalizazioa

**e)** Canalización de la información

Gazteria Zerbitzuarekin elkarlanean, bere funtzionamendua eta programazioa ezagutarazteaz arduratuko da Gaztelekua, Udalaren irizpideekin bat.

El servicio de Gazteleku se encargará, en colaboración con el Servicio de Juventud de dar a conocer su funcionamiento y programación, de acuerdo con los criterios del Ayuntamiento.

Esleipendunak beharrezko informazio-bideak ezarriko ditu, bai nerabeei informazio interesgarria helarazteko, bai nerabeek hautemandako edo emandako proposamenak, interesak eta beharrak Gazteria Zerbitzura helarazteko, bai beren datu pertsonaletan lanaren garapenean izan dezaketen edozein aldaketa helarazteko.

La adjudicataria establecerá los canales de información necesarios para hacer llegar tanto la información de interés a los/las adolescentes, como para hacer llegar al Servicio de Juventud propuestas, intereses y necesidades detectadas o aportadas por los/las adolescentes, así como cualquier variación en sus datos personales del que pudieran tener conocimiento en el desarrollo de su trabajo.

Gazteriako gainerako zerbitzuekin koordinatuta, esku hartzeko leku bakoitzera egokitutako komunikazio jarduera espezifikoak diseinatuko ditu.

Diseñará en coordinación con el resto de servicios de Juventud acciones de comunicación específicas adaptadas a cada uno de los espacios de intervención.

Horretarako, sare sozialak erabiliko ditu, aktiboki erabili ere, egoeraren eta hartzaileen ezaugarrien arabera; alegia, sarerik egokieneko profila elikatuko du.

Se utilizarán activamente las redes sociales como herramienta de difusión y comunicación, en función del momento y de las características de las personas destinatarias, ampliando y alimentando el perfil de la red social más adecuada.

## 4. LANGILEAK

Eman beharreko zerbitzura egokitutako lantalde bat izango du esleipendunak.

### 4.1. Profilak

Enpresa esleipendunak honako profil hauek atxikituko ditu kontratuaren gauzatzera:

**1.- Koordinatzaile-dinamizatzaileak:**

Bi koordinatzaile-dinamizatzaile, bat Gazteleku bakoitzean, Artian eta Martindozenean.

Titulazioa: Diplomatura edo baliokidea Gizarte Hezkuntza, Gizarte Lana, Psikologia edo Irakasletzan, edo Animazio Soziokulturaleko eta Turistikoko goi-mailako heziketa zikloa, edo Gizarteratzeko goi-mailako heziketa zikloa.

**200 orduko lan esperientzia** gutxienez aisia hezigarriarekin eta/edo parte hartzeko aisiarekin, kultur prometan ingurune irekiarekin eta bitartekotza programekin zerikusia duten gaietan.

**2.- Dinamizatzaileak**:

Koordinatzaile-dinamizatzaileaz gain, Gazteleku bakoitzean etengabe gutxienez bi dinamizatzaile izatea bermatu beharko du enpresa esleipendunak. Gainera, edozein gaztelekutan zerbitzu egiteko bosgarren dinamizatzaile bat ere bermatuko du. Azken hau epe zehatz hauetan egingo du lan:

